



## INGURUMEN IRIZPIDEAK KONTRATAZIOETAN TXERTATZEKO LABURPEN-FITXA:

### VENDING-ZERBITZUA

Argitalpen-data: 2018

## EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN ESKULIBURUA


Landutako dokumentua, ingurumen irizpideak erakunde pribatu eta publikoen erosketa eta kontratazioetan txertatzeko erraztasuna eta zabalkuntza sustatzen duten dokumentu bilduma baten barne hartzen da.

Eskuliburu honen bidez, argibide argiak eta praktikoak eman nahi dira, erosketa eta kontratazio publiko berdearekin lotutako helburu guztiak ahalik eta modu errazenean eta pausoz pauso landu ahal izateko. Horrez gain, ingurumenean eragin txikiagoa duten produktu edo zerbitzuak identifikatzen dituzten etiketa nagusiak berrikusten dira. Azkenik, erosketa eta kontratazio prozesuko une bakoitzerako jarraibideak ezartzen dira, prozesua modu arrakastatsuan bukatu dadin.

**EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN ESKULIBURUA** Eusko Jaurlaritzak, Ihobe-Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren bitartez, burututako laguntza-tresna garrantzitsuena da.

Eskuliburu honek, administrazio publikoko zail guztietan erosketa eta kontratazio publiko berdea zabaltzeko beharrezkoa den informazioa eskaintzen du.

Argitalpenaren testu osoa eskuragarri dago [www.ihobe.eus](http://www.ihobe.eus) webgunean.





## GURE ERABAKIA:

### VENDING-ZERBITZUA INGURUMEN-IRIZPIDEekin KONTRATATZEA

Gero eta erakunde eta enpresa gehiagok kontratatzen dute edari (hotz eta beroak) eta elikagaiak (mokaduak eta otorduak) saltzeko makinak zerbitzua.

Zerbitzu hori, ordea, ez dago ingurumen-inpaktu negatiboetatik libre. Hauek inpaktu kaltegarri aipagarrienak:

- *Elikagaien ekoizpen-prozesuek* eragiten dituzten inpaktuak.
- *Makinak* energia-kontsumoa.
- Sortzen diren *hondakinak* (batez ere ontzi eta bilgarriak), gero egoki kudeatzen ez direnak.

Horregatik, fitxa honetan azaltzen da inpaktu horiek ahalik eta gehiena gutxitzeko ingurumenirizpideak nola txertatu behar diren vending-zerbitzuan, kontratazio eta erosketak Berdea irizpide ditugula. Plater kozinatuen salmenta-makinetako elikagaiarentzako irizpideek jangela-zerbitzuetarako gomendioak hartu behar dituzte aintzat (ikus dagokion laburpen-fitxa).



## ZER JAKIN BEHAR DUGUN

Bere ingurumen-inpaktua ahalik eta gehiena gutxitzea du xede ingurumena zaintzen duen vending-zerbitzuak. Horretarako, hona hemen ideia aipagarri batzuk:

### Zenbait kontzeptu nagusi

**Vending-zerbitzua ingurumen-irizpideei jarraiki kontratatzeko, alderdi hauek aintzat hartu behar dira:**

1. Elikagai-motak (ekoizpen-sistemen arabera).
2. Salmenta-makina.
3. Hondakinen sorrera eta kudeaketa.
4. Langileen eta erabiltzaileen prestakuntza.

**Ingurumen-ziurtagiriak: zer ziurtagiri daude eta zer bermatzen dute?**

Vending-zerbitzuetan saltzen diren produktuekin lotutako inpaktuak gutxitzeko erarik errazenetako bat ekoetiketatutako produktuak erabiltzea da. Ziurtagiri nagusiak hauek dira: Ziurtagiri nagusiak hauek dira:

- **Nekazaritza ekologikoaren** ziurtagiriak edo bereizgarriak:

EREMUA	LOGOTIPO OFIZIALA
Europar Batasuna	
Espainiar estatua <sup>1</sup>	
EBko beste estatu batzuk <sup>2</sup>	
Zigilu pribatuak <sup>3</sup>	

<sup>1</sup> Estatu espainolean produktu ekologikoak kontrolatzeko eta ziurtatzeko eskumena Autonomia Erkidego bakoitzari transferituta dago, eta bereizgarri berdina erabili ohi dute baina erkidego bakoitzaren aipamenarekin.

<sup>2</sup> Europako herrialdeetako erakunde ofizialek ematen dituzten ziurtagirien zigilu batzuk.

<sup>3</sup> Europako Batasuneko erregelamenduan ezarritakoak baino zorrotzagoak edo bigunagoak izan daitezkeen irizpideak dituzten eta jendearen aintzatespena duten erakunde pribatuen zigiluak.

## Zenbait kontzeptu nagusi

- **Elikagaietako beste zierlagiri batzuk:**

ZIURTAGIRIA	LOGOTIPO OFIZIALA	ZER ADIERAZTEN DUTE?
Genetikoki eraldatutako organismoetatik (GEO) edo horrelako organismoak dituzten elikagaien etiketatzea		Genetikoki eraldatutako organismoak eta organismo transgenikoekin ekoiztutako elikagaiak

- **Vending-makinentzako zierlagiriak:** etiketa ofizialik ez dagoen arren, Europako Vending Elkarteak energia-kontsumoa neurtzeko protokolo bat dauka. Protokolo horren laguntzarekin, edari beroen makinaren energia-efizientzia modu objektiboan konpara daiteke. Makina hoztuetan, EN-50597 arauak horretarako informazioa eman dezake.
- **Enpresen beren zierlagiriak<sup>5</sup>.** plater kozinatuen salmenta-zerbitzua kontratatzean, produktu-zierlagiriez gain, elikagaiak prestatzeaz arduratzen diren enpresek elikagaien prestateta-zerbitzuentzako Ingurumenaren Kudeaketa Sistema nagusietakoren baten zierlagiria (EMAS, ISO 14001, Ekoscan...) izatea ere eskatu edo balioestea komeni da. Legeria betetzen dela eta zerbitzua ingurumenjardunbide egokiei jarraiki ematen dela bermatzen dute sistema horiek. Gainerako vending-zerbitzuetan eskaera honek ez du hainbesteko garrantzirik.



## EROSKETATIK HONDAKINEN KUDEAKETARA BITARTEKO BIDEA

Vending-zerbitzua edo ingurumen-irizpideekin kontratatzeke prozesuan, erosle eta kontsumitzaile gisara erabakitzeko eta eragiteke zenbait aukera baditugu. Zer unetan? Nola izan iraunkor?

### ZEI DIRA GURE BENETAKO BEHARRAK?

#### 1. Urratsa. Beharrak

Vending-zerbitzuaren kontratazio berdea bideratzeko lehenengo pausoa benetako premiak ezagutzea eta egoki doitzeta da. Hona hemen horretarako irizpide baliagarri batzuk:

- Langile- eta/edo bisitari-kopuruaren arabera eraikin edo kokapen bakoitzean izan daitekeen eskariari erantzuteke behar diren baino salmenta-makina gehiago ez jartzea, eta lehenengo hilabeteetako kontsumoaren segimendua egitea makina-

## 1. Urratsa. Beharrak

kopurua (gorantz edo beherantz) doitzeko. Ez ahaztu: zenbat eta makina gutxiago, orduan eta energia-kontsumo txikiagoa!

- Ez jarri ura saltzeko makinarik (eduki handiko txanbilak edo karbono- edo alderantziko osmosi-filtrodunak saltzekoak kasu), eta kendu ur-botilak edari hotzak saltzeko makinetatik, EAEko hornidura-sareko ura kalitate onekoa baita. Horren ordez, ura freskatu edo berotzekohartuneak jar daitezke lanpostuetatik hurbilago.

## ZER ETA NOLA KONTRATATU?

### 2. Urratsa. Vending-zerbitzuaren kontratazioa

Beharrak zehaztu ondoren, ingurumen-irizpideei jarraiki zerbitzua kontratatzeke unea iritsi da. Hornitzen dizkiguten produktuen kalitatea eta makinaren energia-eraginkortasuna izan behar ditugu gogoan, batik bat, irizpideak ezartzean.

Ikus ditzagun xehetasunak:

- **Produktu-hornikuntzan aintzat hartu beharreko ingurumen-irizpideak:**
  - ⇒ Hornitu behar dizkiguten elikagai gehienak ziurtagiridunak (lehen aipatutako bereizgarrien arabera) izatea eskatu behar dugu:
    - nekazaritza ekologikokoak
    - genetikoki eraldatutako organismorik gabeak.
- **Edari beroak saltzeko makinatarako ingurumen-irizpideak:**
  - ⇒ Makina guztietan (kasu oso justifikatuetan salbu) kafe-aleak erabili behar dira.
  - ⇒ Bestalde, makinako edalontzia erabiltzeko edo ez erabiltzeko aukera eman behar dute, kontsumitzaileak zer nahi duen (norberaren edalontzia erabiltzeko aukera, alegia) eta, era berean, prezio-sistema bikoitza izan behar du, hau da, “edalontziarekin” aukerak gainprezioa izan behar du.
  - ⇒ Energetikoki efizienteak diren makinak instalatzeko eskatuko da. Eskaintzak konparatzeko, enpresa lizitatzailleek EVA-EMP 3.1b estandarraren emaitzak aurkeztu beharko dituzte (Wh/l-tan).
- **Edari hotzak eta jakiak saltzeko makinatarako ingurumen-irizpideak:**
  - ⇒ Energetikoki efizienteak diren makinak instalatzeko eskatuko da. Eskaintzak konparatzeko, enpresa lizitatzailleek EN-50597 arauaren testeko emaitzak aurkeztu beharko dituzte (kWh/urte).

## 2. Urratsa. Vending-zerbitzuaren kontratazioa

- ⇒ Lehenespenez, gas hozgarrien (eta apar isolatzaileen, ahal dela) atmosfera berotzeko ahalmena 150ekoa edo txikiagoa izango da<sup>4</sup>.
- ⇒ Kontsumo-bolumenak justifikatzen badu, bi makina jartzea eskatu: saltzeko makina, edariak itzultzeko ontzietan eman eta gordailu gisara ontziarengatik gainprezioa kobratzen duena, eta itzultzeko ontzien makina, ontzi hutsak Bildu eta edaria erostean ordaindutako gordailua itzultzeko.
- **Zerbitzuarekin lotutako irizpideak:**
  - ⇒ Enpresak honakoa zehaztuko du: zein produktu diren nekazaritza ekologikokoak, behin erabiltzeko edalontzien gainkostua eta edari hoztuen ontzien gaineko gordailua (ontziak berreskuratzeke makina bat badago).
  - ⇒ Administrazioak egin nahi dituen ingurumen-komunikazioko kanpainetan parte hartuko du, saltzeko makinetan publizitaterako dagoen espazioa eskainiz.
  - ⇒ Aplikatutako neurrien jarraipen-txostenak aurkeztuko ditu benetan lortutako ingurumen-hobekuntzak eta ohitura onen ezarpen-maila ebaluatzeko (adibidez, edalontzirik gabeko kontsumizioen ehunekoak guztizkoari dagokionez edo nekazaritza ekologikoko produktuen kiloak edo unitateak).

Zerbitzuaren hasieran makinaren mantentze-lanetarako programa eta egutegi bana aurkeztuko ditu, deskaltzifikaziorako, termostatoak doitzeko, etab. Irizpide horien guztien artetik, bete behar direla edo erraz bete daitezkeela uste dugunak eskatu edo balioetsi behar ditugu kontratazioan.

Administrazio batek ezaugarri horiek dituen zerbitzua prozedura ireki edo negoziatu bidez kontratatu nahi badu, Ihobek argitaratutako Kontratazioarako eta erosketa publiko berderako eskuliburu praktikoan jaso dira klausula-agirian sartu beharreko irizpide zehatzak (hiru eskakizun maila daude: oinarritzakoa, aurreratua eta bikaintasun-maila), Sektore Publikoko Kontratuen Legearen arabera.

<sup>4</sup> Berotegi-efektuko gas fluoratuei buruzko 517/2014 (EB) Erregelamenduan gas fluoratuen zerrenda kontsultatu daiteke, bakoitzaren atmosfera berotzeko ahalmenarekin batera. Derrigorrezko irizpide hori sartu baino lehen, gomendagarria da hornitzaile edo fabrikatzaile nagusiekin egiaztatzea.

## BUKATZEKO, AZKEN URRATSA: JARDUNBIDE EGOKIAK ERAKUNDEAN

### 3. Urratsa. Jardunbide egokiak

- Eraikinetako langile eta erabiltzaile guztientzako *komunikazio- eta sentsibilizazio-lana* egin behar da, vending-zerbitzuan hartutako neurrien berri emateko.
- Edari beroei dagokienez, “edalontzirik gabe” aukera sustatzeko erakundeak langileei berriz erabiltzeko katiluak banatzea komeni da.
- Makinetan hondakin gutxiago sortzeko neurriez gain (“edalontzirik gabe” aukera, ontziak berreskuratzea...), hondakin horiek biltzeko behar diren neurriak ezarri behar dira:
  - ⇒ Hondakinen gaikako bilketa egiteko: gutxienez edukiontzi bat jarri, behar bezala identifikatuta, ontziak eta edalontziak biltzeko, eta beharrezkoa irudituz gero, beste edukiontzi bat, hau ere behar bezala identifikatuta, gainerakoak biltzeko.



### INFORMAZIO GEHIAGO...

#### Lotura interesgarriak

- <http://www.ihobe.eus/compra-publica-verde> webgunea kontsulta dezakezu, **gai honi buruzko informazio ugari** eskaintzen baitu, hala nola: vending zerbitzuari buruzko kapitulu espezifikoa; ingurumen-irizpideak produktu, zerbitzu eta obren kategoriatan honetarako eta beste batzuetarako; eta erreferentziako dokumentazioa, hala nola **Produktuaren ingurumen-etiketatzaren gida**.
- Bestalde, zuzeneko kontsultaren bat egin nahi izanez gero, Ihobe Line telefonora deitu dezakezu: 900 150 864.